

SARRERA

Hasieran ez genekien nondiko jo gure proiektuarekin; galduta genbilen. Gelan hitz egiten ohartu ginen behin, eskiatzen ari ginela, lagun baten telefonoa bateriarik gabe geratu zela eta ez genuen kargatzeko instalaziorik. Gainerakoek nahikoa genuen egun osorako; gainera, markaren arabera, guztiz kargatutako telefono batek egun osoa iraun dezake baina badaude mugikorrek non egun erdia pasatzerako ia bateririk gabe dauden. Orduan konturatu ginen bateria partekatzeko aplikazio bat behar zela, oso erabilgarria izango zena. Egoera horietan, gutako edozeinek bere telefonoan bateria pixka bat partekatu ahal izango luke. Telefono bakoitzarekin partekatu ahal izango genuke, egunerako bateria nahikoa izan dezan.